



Irigarai,
Jose Angel
(Iruñea, 1942)

Jose Angel Irigarai Imaz, euskal kulturan murgilduriko auriztar jatorriko familiaren baitan sortu zen (Iruñea, 1942). Etxeko giroan piztu eta hazi zitzaizkion euskara eta kulturaren aldeko zaletasun eta atxikimendua, letren munduan murgiltzeko joera. Aitatxi, Fermin, euskal letretan *Larreko* izenez ezagutua; Euskaltzaindia sortu-eta urgazleen lehen lonbramenduan, 1919an, lehen nafar euskaltzainetarik izan zen. Aita, Aingeru, euskararen ingurukoan hainbat urtez jardundakoa eta hainbat artikulua eta libururen egile, euskaltzain osoa izan zen.

Medikuntza ikasten ari zela, Iruñean, hasi zen euskalgintzan jarduten. Principe de Viana Elkargoaren euskararen aldeko sailean, laguntzaile xume gisa herriz herriko haurren etsaminetan, zenbait bertsolari txapelketa eta jaiaren antolakuntzan, eta beste. Segidan, Aita Felipe Murietako kaputxinoak argitaratzen zuen *Umeen Deia* aldizkaritxoa kudeatzen eta argitaratzen laguntzen hasi zen eta, laster, hark, osasuna zela-eta, ezin izan zuenean, Rafael Goñi apezarekin batera, erabateko kudeaketaz arduratu zen hainbat urtez.

Handik gutxira, 60ko hamarkadaren erdi aldera, *Ez Dok Amairu* taldeko partaide izan zen. Bertan bide aitzindari oparua jorratu zen kantugintzan, beste zenbait arte eta kulturgintzarekin tratatua (antzerkia, dantza, literatura, arte plastikoa...). Garai horietan *Herri Gogoa* argitaletxearen fundatzailetarikoa izan zen; ondotik *Artezi* argitaletxearena, zenabit liburu eta euskal kantari eta musikarien disko sail luze eta baitezpadakoa argitaratu zutenak, bereziki lehenbizikoan.

70ko hamarkadan, hainbat urtez Nafarroako ikastolen sorreraren mugimenduan ibili zen, herriz herri ikastolen aldeko dinamika sustatuz. Garai berean, hainbat urtetan Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkaria izan zen. Urte horietan partaide zuzena izan zen Eusko Ikaskuntza elkartearen birsortze prozesuan, elkarteko idazkari nagusia izateraino.

1995an Bilboko Kafe Antzokiaren sorreran parte hartu zuen eta ondoko ia 10 urtez bertako kultur sailaz arduratu zen, txertatua ere bertako gainerako dinamikan. 1996an Jorge Oteiza artistak Nafarroan kokatuko zen bere Fundazioaren patronatukide izendatu zuen. Lehenagotik, eta oraindik ere, kolaboratzen hasia zen Iruñeko Pamiela agitaletxeko edizio lanetan.

Sorkuntzari dagokionez, literatura da bere alor nagusia: saiakera, narrazioa eta bereziki poesia. 1972. urtean Iruñeko Aurrezki Kutxak antolaturiko Premios Centenario lehiaketan *Euskera eta Nafarroa* lana sariztatua izan zen eta hurrengo urtean argitaratua. 1975ean Hondarribiko Euskal Jokoen lehen saria, "lore naturala", irabazi zuen *Bidasoa, poza eta mina* poemarekin. 1977an Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren Irun Hiria saria, *Kondairaren ihauterian* poema bildumarekin (CAP, Donostia, 1978), eta urte berean Iruñeko Aurrezki Kutxak antolatutako Xalbador lehen lehiaketarena *Oinazez* poema bildumarekin. Beste poesia lanak: *Bizi minaren olerkian* (Pamiela, 1986), *Urdinkara* (Pamiela, 1995) eta *Joan-jinaren labirintoan* (Pamiela, 2002). Orobat XX. mendeko poesia kaierrak bilduman (Koldo Izagirrereren edizioa. Susa, 2001). Bere zenbait poema kantatu dira: *Orreagako gatatzka*, *Bizkaia maite*, *Urak dakarrena*, *Eman bizitzeari*, *Bidean*, *Zeharbidetan...*

Beste literatur lanak: *Gauerdiko ele galduak* narrazioak (Elkar, 1986), *Euskara bizitzaren kenkan*. *Orekaren mintzoa* saiakera (Pamiela, 1988) eta *Denboraren mugan* narrazio liburua (Pamiela, 2005). Artikuluak ere zenbait aldizkaritan.

Argitarabidean dauzka beste poesia-lan bat eta zenbait saiakera.

